



## Nola jolasten da?

Animalia desberdinen irudiak behar ditugu jolas honetarako. Margotu, beste jolas batetik hartu, ... poltsa txiki batean sartuko ditugu.

Poltsatik animalia baten irudia hartu eta kopetan ipiniko dugu zer den ikusi gabe. Galderak eginaz nor garen asmatzeko unea da.

### TXIKITXOEKIN JOLASTEKO ALDAERA:

- Ez dakit nor naizen. Lagunduko didazu?
- Baaaaai!
- Elefantea naiz?
- Ez, ez zara elefantea.
- Ez dakit nor naizen. Lagunduko didazu?
- Baaaaai!
- Katua naiz?
- Bai!! Katua zara. Orain nire txanda.

### NAGUSIEKIN JOLASTEKO ALDAERA:

- Ez dakit nor naizen. Lagunduko didazu?
- Baaiiiii!
- Non bizi naiz?
- Basoan bizi zara.
- Ta zenbat hanka ditut
- Lau hanka dituzu...
- ...

**JOLASTU** ostean animalien irudiekin bete dugu poltsatxoa kutxan sartu.

**GOMENDIOA:** Euskara asko ez dakiten gurasoek erabiliko diren animalien izenak ikasi eta jolasteko elkarrizketa ikastea komeni da.

Nagusiekin jolasteko aldaeran momentu batzuetan euskaraz nola esaten den ez badakigu ez kezkatu. Esan gazteleraz baina hurrak euskaraz esan dezala, ez badiozu ulertzen lehenengo euskaraz esateko eta gero gazteleraz laguntzeko eskatu.

HURRENGOETAN: Kutzako jolasekin jolastera!

## Gaur zein tokatuko zaigu?

Kutzatik begiak itxita zerbait atera eta  
hori izango da egunerako jolasa!

Jolas hauetaz gain, sarean hainbat aukera dituzue etxean euskarari lekua egiteko eta seme-alabekin batera disfrutatzeko. Baliatu itzazue! Hemen horietako batzuk:

<b>Marrazki bizidunak</b>	ETB3	Ziur badaudela gure seme-alaien gustuko marrazkiak
<b>Marrazki bizidunak</b>	<a href="http://www.euskal-encodings.com/marrazkiak">www.euskal-encodings.com/marrazkiak</a>	Hainbat pelikula eta marrazki bizidun. ETBn urteetan emandakoak. Aukera zabala duzue!
<b>Entzuteko ipuinak</b>	<a href="http://www.etxegiroan.eus">www.etxegiroan.eus</a>	Entzuteko ipuinak. Entzun ditzagun seme-alabekin batera.
<b>Entzuteko ipuinak</b>	<a href="http://www.aittu.eus">www.aittu.eus</a>	Bideoipuinak, audioipuinak, mitologiaren txokoa... Merezki duen gunea.
<b>Entzuteko ipuinak</b>	Mobileko aplikazioa: Ipuintxo	Mugikorretik ipuinak entzuteko aukera.
<b>Entzuteko ipuinak</b>	<a href="http://www.synbaloo.com/mix/ipuinklasikoak">www.synbaloo.com/mix/ipuinklasikoak</a>	Ipuin klasikoak marrazkien laguntzaz entzuteko ipuinak
<b>Entzuteko ipuinak</b>	<a href="http://www.solaseaitekoipuinak.net">www.solaseaitekoipuinak.net</a>	Ipuinak, denborapasak eta bestelakoak
<b>Karaokea</b>	<a href="http://www.txantxangorria.eus">www.txantxangorria.eus</a>	Ikasi eta abestu euskarazko abestiak seme-alabekin batera
<b>Euskarazko jolasak</b>	<a href="http://www.urtxintxa.eus/etxean-egiteko-jolasak">www.urtxintxa.eus/etxean-egiteko-jolasak</a>	Hainbat jolas eta proposamen etxean egiteko modukoak
<b>Euskarazko jolasak</b>	Mobileko aplikazioa: Jolastoki	Mugikorretik euskaraz jolasteko aukera.